

MENDI UDALEKUAK
BELAGUAN



INFORMAZIO TXOSTENA

2026 | UZTAILAK 10 - 16

2012 - 2009. URTEAN JAIOTAKOAK | 14 - 17 URTE

ANTOLATZAILEA: GARMENDI MENDI GIDARIA

AURKEZPENA

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026

ONGI ETORRI BELAGUAKO MENDI UDALEKUEN BIGARREN EDIZIORA!

Aurten ere Belaguako Aterpera itzuliko gara, eta 7 egun eta 6 gauz, 14 eta 17 urte bitarteko gazteek mendizaletasunaren munduan murgiltzeko aukera paregabea izango dute, Pirinioetako ingurune ikusgarrian.

Udaleku hauek ez dira soilik mendian ibiltzeko edo ondo pasatzeko proposamen bat. Ikasteko, esperimentatzeko eta harreman berriak sortzeko espazio bat da, non mendia aitzakia bihurtzen den balioak, trebetasunak eta autonomia lantzeko.

Belaguako aterpea gure “kanpaleku nagusia” izango da, eta handik abiatuta inguruko mendietara eta bidezidorretara irtengo gara. Orientazioa, kartografia, lehen sorospenak eta meteorologia bezalako oinarritzko ezagutzak landuko ditugu modu praktiko eta dinamikoan, betiere tokiko fauna, flora eta ingurune naturalaren ezagutzarekin uztartuz.

Jarduera guztiak gazteen garapen pertsonala eta talde-kohesioa sustatzeko pentsatuta daude, mendiarekiko eta ingurumenarekiko errespetua ardatz nagusi izanik. Bigarren edizio honetan, aurreko urteko esperientzian oinarrituta, bizi-esperientzia aberats eta ahaztezina eskaintzea da gure helburua.



HELBURUAK

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026

Belaguako aterpeko mendi udaleku honek hainbat helburu nagusi ditu, parte-hartzaileen esperientzia aberasteko eta naturan zein mendian jokabide ona sustatzeko.

Helburu horien artean honakoak daude:

1.Bizikidetza sustatzea: Parte-hartzaileen artean talde-lana sustatzea, talde-jardueren bidez, gizarte-trebetasunak garatzen eta adiskidetasun-loturak sortzen lagunduz.

2.Ingurumen hezkuntza: Bertaratutakoak ingurune naturala zaintzearen garrantziaz kontzientziazatzea. Tailer eta hitzaldien bidez, parte-hartzaileek tokiko flora eta faunari buruz ikastea bilatzen da, baita praktika jasangarriei buruz sakontzea ere.

3.Mendizaletasun-trebetasunen garapena: Mendizaletasuneko oinarritzko teknikak ikastea, hala nola, orientazioa, mendiko segurtasuna eta bizirauteko trebetasunak. Horri esker, parte-hartzaileak seguruago eta gaitasun handiago batekin sentituko dira aire zabaleko jardueretan.

4.Meteorologiari buruzko oinarritzko ezagutzak: Parte-hartzaileei meteorologiari buruzko oinarritzko ezagutzak ematea, eguraldiaren iragarpenak interpretatzeko eta baldintza klimatikoek mendian nola eragin dezaketen ulertzeko.

5.Lehen sorospenak: Bertaratutakoak lehen sorospenetako oinarritzko kontzeptuetan gaitzea, larrialdietan behar bezala jarduteko eta beraien buruen zein kideen segurtasuna bermatzeko prestatuz.

6.Mendiko aterpeen funtzionamendua: Mendiko babeslekuen funtzionamenduari eta kudeaketari buruz ikastea, bizikidetza-arauak, erabilgarri dauden baliabideak eta egonaldiak modu seguru eta arduratsuan planifikatzeko moduak barne hartuz.



MENDI GIDARIA

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026

Ibai Iturria Garmendia naiz, Bera (Nafarroa) herrian jaioa eta hazia, naturarekiko, mendiarekiko eta kirolarekiko nire pasioa oso gaztetatik piztu zidan ingurune pribilegiatuan.

2013. urtean, nire bizitzari norabide berri bat ematea erabaki nuen, eta erabat mendiari eskaintzea. Betidanik erakarri nau bere indarrak, lasaitasunak eta transmititzen dituen balioek. Nire bidea trail running-arekin hasi zen, ahalegina, abentura eta naturarekiko lotura uztartzeko aukera eman zidan diziplina batean. Hala ere, lesio batek lehiaketa uztera behartu ninduen, eta inflexio puntu horrek mendiarekin nuen harremana beste ikuspegi batetik lantzera bultzatu ninduen: ezagutzatik, segurtasunetik eta esperientziak partekatzetik.

2022 eta 2024 artean, mendi-gidari gisa nire prestakuntza osatu nuen, nire pasioa ofizio bihurtuz. Prozesu horretan, trebetasun teknikoak eta orientazio-gaitasunak eskuratzeaz gain, natur inguruneetan pertsonak laguntzeko, motibatzeke eta zaintzeko ahalmena garatu nuen, mendiaz modu seguruan eta arduratsuan goza dezaten lagunduz.



MENDI GIDARIA

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026

2025. urtean, nire ibilbidea sendotu dut urtebeteko esperientzia profesionalarekin, mendi-irteerak eta zeharkaldiak gidatu eta antolatzen, guztiak nik neuk erabat planifikatu, kudeatu eta zuzenduak.

Autonomo gisa lehen urte honek aukera eman dit nire ibilbide propioak diseinatzeko, maila ezberdinetako taldeak koordinatzeko eta dozenaka pertsonarekin batera paisaia berriak ezagutzeak eta erronka pertsonalak gainditzeak ematen duen emozioa partekatzeko.

Gaur egun ere, gidari gisa hazten jarraitzen dut, hasieratik bultzatu nauten ilusio eta mendiarekiko errespetu berarekin. Nire helburua esperientzia egiazkoak, seguruak eta aberasgarriak eskaintzea da, non parte-hartzaile bakoitzak bere burua eta ingurunea modu sakonean konektatuta senti ditzakeen.

Zure hurrengo abenturan lagun egitea ohore bat izango da.

IBAI ITURRIA GARMENDIA

TD2 - MENDI ERTAINEKO GIDARIA (AEGM 2195 - UIMLA)



GAR-MENDI
IBAI ITURRIA GARMENDIA
MENDI GIDARIA

LANTALDEA

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026

Garmendi Mendi Gidariak antolatu du udaleku hau, Ibai Iturria Garmendiak sortutako gidaritza zerbitzua. Hau horrela, mendi udaleku hau, AEGM-n sartutako mendi gidari titulatu batek zuzenduko du eta aisialdiko begirale titulatu bat ere bertan izango da taldea kudeatzen.

Mendi gidari izateko ikasketak amaitzen ari den praktiketako beste Mendi Gidari bat izango dugu ere gurekin.

IBAI ITURRIA GARMENDIA

TD2 - MENDI ERTAINEKO GIDARIA (AEGM ZKIA 2195 - UIMLA)



IÑIGO MARTINEZ GUERRA

AISIALDIKO BEGIRALE TITULATUA

INFORMAZIO OROKORRA

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026

Data: 2026eko uztailaren 10tik 16ra.

Kokapena: Belaguako aterpean (Izaba, Nafarroa).

Adin tartea: 14 eta 17 urte bitarteko partehartzaileentzat.

Prezioa: 650€/pertsonako (autobusa Beratik barne).

Leku kopurua: 10 partehartzaile gutxienez eta 24 gehienez.

Egonaldia Belaguako bailaran izango da, zehazki Nafarroako Pirinioetan. Aterpea, gutxi gorabehera 1.700 metroko altitudetan kokatua, mendiko jarduera desberdinak egiteko abiapuntu ezin hobea izango da, mendiko ibilaldi zoragarriak egiteko aukera barne.

Belaguako aterpea Isabatik 20 kilometro ingurura dago, eta autoz 30 minututan iritsi daiteke gutxi gorabehera, errepidearen egoeraren arabera. Beratik, aldiz, 186 kilometro daude.



BELAGUAKO ATERPEA

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026

BELAGUAKO ATERPETXEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK:

- Pentsio osoa
- 8 pertsonentzako gelak (komunak eta dutxa barne)
- Armairu gela
- Taberna eta jangela
- Ikus-entzuneke gela bat
- Terraza
- Aparkalekua
- Heliportua
- Aterperaino autoz sartzeko aukera
- Irrati-satelite bidezko komunikazioa
- Botikina
- Mugikorrarentzako estaldura
- DESA (bihotz-biriken bizkortzea)



PROGRAMA OROKORRA

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026



1 - MENDI TXANGOAK

EGUNERO MENDI TXANGO EZBERDINAK

- CAMINO DE ZEMETO + BELABARTZE 10KM
- MATA DE HAYA - 15 KM
- LAPAZARRA - 15 KM
- EL FERAL - 15KM



2 - TAILERRAK

EGUNERO TAILER PRAKTIKOAK

- LEHEN SOROSPENA
- METEOROLOGIA
- ORIENTAZIOA, KARTOGRAFIA ETA GPS
- INGURUMENA - FAUNA ETA FLORA



3 - IGOERAK

AZKEN EGUNEKO TONTORRAK

- BINBALETA
- LAKORA
- LAKARTXELA



4 - DENBORA LIBREA

ARRATSALDERO

- AISIALDIRAKO TARTEAK
- TALDE DINAMIKAK
- JOLASAK

PROGRAMA ZEHATZA

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026

OSTIRALA | UZTAILAK 10

15:30h	Taldearen irteera autobusez Beratik (Toki Onako aparkalekua)
18:00h	Belaguako aterpera iristea eta logelen banaketa
18:30h	HASIERAKO BRIEFING-A IKUS-ENTZUNEZKOEN ARETOAN - Aurkezpenak - Aterpearen funtzionamendua eta arauak 1. tailerra: - Hurrengo egunerako meteorologia behatzea - Parte-hartzaile bakoitzaren botikinak egiaztatzea
20:00h	AFARIA BELAGUAKO ATERPEAN

LARUNBATA | UZTAILAK 11

08:00h	GOSARIA ATERPEAN
09:30h	CAMINO DE ZEMETO + URJAUZIA MENDI TXANGOA - Hasi aurretik, motxilak eta meteorologia egiaztatu 10km-ko zirkularra, 350m-ko desnibela 2. tailerra: - Lehen sorospenak - Arriskuen kudeaketa mendian - Mendian jarduteko protokoloa
14:30h	BAZKARIA BELAGUAKO ATERPEAN
15:30h - 17:30h	Denbora librea
17:30h	TALDE DINAMIKA
20:00h	AFARIA BELAGUAKO ATERPEAN

PROGRAMA ZEHATZA

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026

IGANDEA | UZTAILAK 12

08:00h	GOSARIA ATERPEAN
09:30h	TREKKING LAPAZARRA • Hasi aurretik, motxilak eta meteorologia egiaztatu • 10 km-ko zirkularra, 250 m-ko desnibela • 3. tailerra: ◦ Ingurumena ◦ Trekkingean hainbat flora-espezie biltzea
14:30h	BAZKARIA MENDIAN
15:30h - 17:30h	Denbora librea
17:30h	TREKKINGEAN ZEHAR HARTU DITUGUN GAUZEN INTERPRETAZIOA.
18:30h	TALDE DINAMIKA ETA JOLASAK
20:00h	AFARIA BELAGUAKO ATERPEAN



PROGRAMA ZEHATZA

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026

ASTELEHENA | UZTAILAK 13

08:00h	GOSARIA ATERPEAN
09:30h	TREKKING GR-12 BIDETIK MATA DE HAYARANTZ • Hasi aurretik, motxilak eta meteorologia egiaztatu • 15 km eta 415 m-ko desnibela duen zirkularra • 4. tailerra: ◦ Orientazioa eta kartografia ■ Mapa eta brujularekin
14:30h	BAZKARIA MATA DE HAYAN (ATERPEAN PRESTATUTAKO PIKNIKAREKIN)
16:00h	ATERPERA IRITSIERA • Dutxa • Denbora librea
20:00h	AFARIA BELAGUAKO ATERPEAN




PROGRAMA ZEHATZA

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026

ASTEARTEA | UZTAILAK 14

08:00h	GOSARIA BELAGUAKO ATERPEAN
09:30h	EL FERIA • Hasi aurretik, motxilak eta meteorologia egiaztatu • 15 km-ko zirkularra, 500 m-ko desnibela • Orientazioa iparrorratzarekin eta maparekin praktikatuko dugu
14:30h	BAZKARIA MENDIAN
15:30h - 17:30h	Denbora librea
17:30h	PISTA JOKOA ATERPEKO ZELAIETAN • Iparrorratza eta mapa kartografikoarekin
20:00h	AFARIA BELAGUAKO ATERPEAN



PROGRAMA ZEHATZA

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026

ASTEAZKENA | UZTAILAK 15

08:00h	GOSARIA BELAGUAKO ATERPEAN
09:30h	LAKORA EDO KORTAPLANA GAILURREKO SAIAKERA - HASI AURRETIK, MOTXILAK ETA METEOROLOGIA EGIAZTATU 10 kilometroko zirkularra
14:30h	BAZKARIA MENDIAN
15:30h - 17:30h	Denbora librea
17:30h	5. Tailerra: Orientazioa GPS gailuarekin - Orientazio jokoak GPS gailuarekin taldeka
20:00h	AFARIA BELAGUAKO ATERPEAN



Lakora mendira igoera

PROGRAMA ZEHATZA

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026

OSTEGUNA | UZTAILAK 16

08:00h	GOSARIA BELAGUAKO ATERPEAN
09:30h	BUKAERAKO BRIEFING-A IKUS-ENTZUNEZKOEN ARETOAN • Agurra • Ikasitakoaz ohartu eta elkarrekin partekatu • Udalekuen balorazioa: ◦ Egonaldia ◦ Egindako tailerrak ◦ Gidari eta begiralearen jarduna ◦ Gehien/gutxien gustatutakoa ◦ Aldaketak edo proposamen berriak
10:00h	ETXERA ITZULERA



ENHI ITURRIA-SAN MATEO
MENDI UDALEKUA

MATERIALA

BELAGUAKO MENDI UDALEKUAK 2026

Jarraian, mendi udalekurako ezinbesteko materialaren zerrenda eguneratua ematen dizuegu. Garrantzitsua da parte-hartzaile bakoitza ongi ekipatuta etortzea, jarduera guztietan segurtasuna, erosotasuna eta gozamena bermatzeko. Materiala aldezturik elkarrekin berrikustea eta parte-hartzailearen izenarekin markatzea gomendatzen dugu.

MOTXILA

- **Ekipaje nagusirako motxila handia edo petatea.**

- Kanpamentuan egoteko behar den material guztia motxila handi edo petate bigun batean etorri behar da. Aterpean, logelak goiko solairuan daude eta armairuak beheko solairuan. Oro har, aterpetxeko langileek motxila haundia armairuetan uzteko eta lo egiteko behar duguna soilik igotzeko eskatzen digute.
- Kontuan izan armairuak ez direla oso handiak, eta, beraz, ez dugu gomendatzen maleta gurpildunak ekartzea, ez baitira behar bezala sartzen.
- Materialaren zati bat logeletara igo dezakegun arren, espazioa oso mugatua da, aterpetxeko langileek adierazi digunez.

- **Motxila txikia eguneroko jardueretarako**

- Parte hartzaile bakoitzak 25 eta 30 litro arteko motxila txiki bat ekarri behar du, egunero trekking eta aire zabaleko tailerretan erabiliko duguna. Bertan, jardunaldirako beharrezkoa dena eramango dugu:
- Ura
- Botikin pertsonala
- Piknika eta eguneko bazkaria
- Ordezko kamiseta bat
- Jaka arina edo iragazgaitza
- Eguzkitako krema, eguzkitako betaurrekoak

Garrantzitsua da motxila eroso izatea eta ondo doitu egotea, egunero erabiliko baita irteeretarako.



Bidai maleta
edo gurpildun
maleta



Petatea



edo



Motxila haundia



Motxila txikia

MENDIRAKO

- 20-30 litroko motxila txikia. Euri babesarekin.
- Mendiko botak iragazgaitz eta transpiragarriak, kanabera ertainekoak.
 - Mendiko oinetako bereziak gomendatzen ditugu, erosoak eta aldezturik erabiliak. Botarik ez baduzue, trekkingeko zapatilak erabili daitezke, nahiz eta babes txikiagoa ematen dioten orkatilari.
- Arropa teknikoa:
 - 3 kamiseta transpirable (kirolerako edo mendirako balio dutenak)
 - Mendiko 2 praka luze edo "mallak".
- Jaka iragazgaitz 1 (haize-babesak, Gore-Tex edo txubaskero motakoak)
- Forro polar edo plufimero arin bat.
- Trekkinerako 3 galtzerdi pare.
- Txanoa, eskularru finak eta lepoko braga (buff) (aukerakoa).
- Trekking makilak (aukerakoa baina gomendatua).
- UV babesa duten eguzkitako betaurrekoak.
- Oinarritzko botikin pertsonala. Lehen sorospenerako oinarritzko kit-a:
 - Parte-hartzaile bakoitzak botikin txiki bat eraman behar du, honako hauekin:
 - Tiritak, gasak eta esparatrapua
 - Urratu edo ziztadetarako pomada
 - Analgesiko arina (normalean erabiltzen duena)
 - Medikazio pertsonala (izen eta dosi argiekin)
 - Guk botikin oso bat eramango dugu taldearentzat.
- Kantinplora edo hidratazio-sistema (gutxienez 1,5 - 2 l).
- Janari energetikoak (fruitu lehorrak, "barritak", gelak).
- Eguzkitako krema, ezpainetako babesa eta eguzkitarako txapela.
- Aterki txikia (euria egiten badu erabiltzeko).
- Plastikozko 2 poltsa txiki. (Izozgailurako erabiltzen direnak)

ATERPETXERA KO

- Aterperako oinetako erosoak, "crops" edo txankletak.
- Dutarako txankletak.
- 10-15°C-ko konforta duen lozakua.
- Lehortze azkarreko toalla dutxarako.
- Higiene pertsonalerako nezeserra;
 - Eskuila eta hortzetako pasta.
 - Xanpua eta dutxa-gela
 - Desodorantea
 - Eta abar...
- Lo egiteko arropa erosoak edo pijama.
- Frontala eta kargagailua edo ordeztoko pilak.
- Arropa zikinarentzako plastikozko poltsa.
- Mugikorraren kargagailua.
- Aterpetxean erosketak egiteko eskudirua.

AISIALDIRAKO ARROPA EROSOA

- Aisialdirako kirol-zapatilak
- Kotoizko 2 kamiseta.
- Praka laburrak edo luzeak
- Jaka edo jertsea
- Barruko arropa (egunero behar adina muda)
 - Eguneke muda bat kalkulatzek gomendatzen dugu, eta ordeztoko bat gehitzea, badaezpada.

DOKUMENTAZIO PERTSONALA

- Diru-zorroa
 - Nan-a
 - Osasun txartela
 - Eskudirua

PREZIOAK

BELAGUAKO MENDI UDALEKUAK 2026

PREZIOAN SARTZEN DA

- Jardueraren aurreko aholkularitza.
- Autobusa zerbitzua; Bera - Belagua / Belagua - Bera
- Belaguako Aterpean Pentsio Osoa 7 egunetarako
- Gidaritza zerbitzua: Mendi Ertaineko Gida tituluduna (AEGM-UIMLA).
- Aisialdiko monitore titulatua
- Tailerretako materiala; Iparrorratzak eta mapa
- Garmin InReah Satelite bidezko komunikazio sistema Larrialdietarako
- Istripu eta erantzukizun zibila aseguruak.
- Mendi gidariaren eta monitorearen ordainsariak
- B.E.Z-a.

EZ DA PREZIOAN SARTZEN

- Aterpeko otordutik kanpoko erosketak
- Lo egiteko manta alokairua (3€)
- Kontrolatu ezin diren egoerak (hondamendi naturalak, arazo atmosferikoak edo meteorologikoak, etab.) programaren aldaketan eragindako aparteko gastuak ez dira sartu.
- Aurreko atalean zehaztu ez den edozein zerbitzu.

PREZIOA

GUTXIENeko TALDEA: 10 pax

GEHIENEZKO KOPURUA: 24 pax

TALDE TXIKIA (10 - 15 pertsona)

- 650€/pax

TALDE HAUNDIA (21 - 24 pertsona)

- 575€/pax
-

INFORMAZIO GARRANTZITSUA

BELAGUAKO MENDI UDALEKUAK 2026

Belaguako mendi udalekuak, mendiko udalekuak dira, ez “hiri udalekuak” ezta “aisialdi udalekuak” ere.

Mendia da udalekuen ardatz nagusia, eta horrek markatzen du erritmoa eta jardueren izaera.

EGUNEROKO JARDUERA MENDIAN

- Egunero mendiko jarduera egingo da, hainbat orduko iraupena duten irteerekin.
- Txangoek, distantzia, desnibel positiboak (igoerak, aldapak) eta mendiko lur mota ezberdinak izango dituzte.
- Jarduerak adin taldeari egokituko zaizkio, baina beti mendiko jardueraren berezko esfortzu fisikoa eskatuko dute.

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA

- Parte-hartzaileek mendian ibiltzea gustuko izan behar dute eta ingurune naturalean eroso sentitu.
- Aurretiko mendiko esperientzia izatea beharrezkoa da (ibilaldiak, txango luzeak, mendira ohituta egotea...).
- Udaleku hauek mendiko jarduera lehenesten duten haur eta gazteentzat pentsatuta daude, eta ez hainbeste jolas edo dinamika arinetan oinarritutako udalekuak bilatzen dituztenentzat.

MENDIA ETA TALDE DINAMIKAK

- Jarduera nagusia mendia da, eta egunaren zati handiena horretan oinarritzen da.
- Arratsaldero jolasak, talde-dinamikak eta jarduera lasaiagoak egingo dira, elkarbizitza, atsedena eta talde-kohesioa lantzeko.
- Hala ere, udaleku hauen ikuspegia nabarmen mendizalea da.

KONPROMISOA ETA ITXAROPENAK

- Garrantzitsua da familiek eta parte-hartzaileek udalekuen izaera argi izatea izen-ematea egin aurretik.
- Parte-hartzeak erritmo aktiboa, mendiko ingurunearekin etengabeko harremana eta mendiak berezko dituen baldintzak onartzea dakar.

GARRANTZIZKO TELEFONO ZENBAKIAK

BELAGUAKO MENDI UDALEKUAK 2026

MENDI GIDARIA ETA AISIALDIKO BEGIRALEA



Ibai Iturria Garmendia	+ 34 647 29 61 04	ibai.iturria@gmail.com
Iñigo Martínez Guerra	+ 34 626 64 59 99	tapala9@gmail.com

BELAGUAKO ATERPEA



Telefonia	+34 623 10 73 17	
Helbidea	Carretera Na-137 Puerto de Belagua 31417 Izaba	
Posta elektronikoa	belaguarefugio@gmail.com	
Irrati komunikazioa	146'175 MHz, Subtono 123 Hz	Aterpe guztietan erabilgarri
7-7 Ekimena	7-7 PMR IRRATI KANALA	Walkie lizentziarik gabe mendizale guztientzat

LARRIALDI TELEFONOAK



LARRIALDIAK	112	
Erronkariko GREIM taldea	948-475005	
Iruñeako GREIM	948-296850	
Izabako guardia zibila	948893345	
Iruñeako polizia forala	948 012 012	

IRUDIAK

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026



BELAGUAKO ATERPETXEA




"MIRADOR DE ZEMETO" TXANGOA



ATERPETXEKO BARRUKALDIA



ATERPETXEKO LOGELA



BINBALETA



"MATA DE HAYA" TXANGOA

2025EKO EDIZIOKO ARGAZKIAK

MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 2026



IZEN-EMATEAK

BELAGUAKO MENDI UDALEKUAK 2026

Udalekuetan parte hartzera animatzen bazara, nirekin harremanetan jar zaitezke info@garmendi.eus helbidera mezu bat bidaliz edo WhatsApp bidez 647 29 61 04 zenbakira mezu bat bidaliz. Izena emateko inprimakia eta zure erregistroa osatzeko behar duzun dokumentazioa bidaliko dizkizut.

Eskerrik asko aldeztu aurretik zeharkaldian interesa izateagatik. Espero dut proposamena zure gustukoa izan dela.

WHATSAPP - 647 29 61 04 (IBAI ITURRIA GARMENDIA)

info@garmendi.eus

Instagram - @garmendi_ - @ibai_iturria_garmendia

